

## **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN BATZORDE PARITARIO ETA BESTELAKOAK, LAN HARREMANEN KONTSEILUAN LAGUNTZA JASO DUTENAK 2023 URTEAN**

### **Arrain-kontserbak eta gazituak**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2022ko apirilaren 25a.
- Jarduera:
  - Lanbide-sailkapenari eta lanbide-taldeei buruzko saio bat.

### **Ehungintza Merkataritza**

- Batzorde Mistoa eratu zen data: 2023ko azaroaren 9a.
- Jarduera:
  - Interpretatzeko bost kontsultaren analisia.
  - Artikuluen balizko ez-betetzeei buruzko kontsulta baten analisia.

### **Elikagaigintza Merkataritza**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2022ko martxoaren 17a.
- Jarduera:
  - Interpretatzeko kontsulta baten analisia.
  - Hitzarmena ez aplikatzeari buruzko eskaera baten analisia.

### **Eraikin eta lokalen garbiketak**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2022ko urriaren 25a.
- Jarduera:
  - Hitzarmenaren artikulua interpretatzeko bederatzi kontsulta.

### **Eraikuntza**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2022ko urtarrilaren 26a.
- 2023ko jarduerak:
  - Hitzarmen sektorialaren artikulua interpretatzeko kontsulta baten analisia.
  - Hogeita bost komunikazio lan-amaierei buruz.
  - Komunikazio bat kontratu baten azkentzeari buruz.

### **Esku Hartze Soziala**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2019ko otsailaren 5a.
- Jarduera:
  - Hitzarmen sektorialaren artikulua interpretatzeko bi kontsultaren analisia.

- Hitzarmen sektorialaren zenbait artikuluren balizko ez-betetzeen inguruko kontsulta baten analisia.

## **Etkez etxeko laguntza**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2023ko azaroaren 9a.
- Jarduera:
  - Hitzarmen sektoriala interpretatzeko kontsulta baten analisia.

## **Industria Siderometalurgikoa**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2023ko ekainaren 22a.
- Jarduera:
  - Batzorde Paritarioari planteatutako lau gairen analisia.
  - Hitzarmen sektoriala ez aplikatzeko prozedura bati buruzko dokumentazioa jasotzea.

## **Industria Siderometalurgikoa (Berdintasun Batzordea)**

- Berdintasun Batzordea eratu zen data: 2023ko ekainaren 22a.
- Jarduera:
  - Hitzarmen kolektibo sektorialak Berdintasun Batzordeari agindutako eginkizunei buruzko lau lan-saio.

## **Metalaren Merkataritza**

- Batzorde Mistoa eratu zen data: 2018ko irailaren 13a.
- Jarduera:
  - Interpretatzeko kontsulta baten analisia.

## **Merkataritza Orokorra**

- Batzorde Mistoa eratu zen data: 2018ko urriaren 10a.
- Jarduera:
  - Interpretatzeko bi kontsultaren analisia.

## **Ostalaritza**

- Batzorde Paritarioa eratu zen data: 2018ko urriaren 30a.
- Jarduera:
  - Bi formakuntza-proposamenen analisia, oniritzia emateko.

## **Petronorren kontratistak (Egonkortasunerako Ituna)**

- Eratu zen data: 2022ko apirilaren 6a.
- Jarduera:
  - Balizko ez-betetzei buruzko zortzi kontsultaren analisia.
  - Kontratu arteko Segurtasun eta Osasun Batzordea abian jartzeko eskaerari erantzutea.